


www.noaia.com Noaia !!



Kulturaldiaren eskutik,
Ez dok Hiru antzerki taldea



Andatza Mendi Taldearen

etorkizuna, kolokan

Enar
ESTETIKA

FOTODEPILAZIOA

munalurra 2, Usurbil 943 571 680

ESKAINNTZA 1:

-Irogarki hau ekartzen baduzu

%25eko DESKONTUA

-Lagun batekin etortzen bazara

%50eko DESKONTUA 1.ºo solioan biltzat

2009ko abenduaren 15arte (Beste eskaintzekin batera ezina)

ESKAINNTZA 2:

BONO 5 SAIO + 2 DOAN

BONO 3 SAIO + 1 DOAN

Urte osoan zehar

PREZIO OÑAK, ORDAINTZEKO ERRAZTASUNAK
INFORMA ZAITEZI!

Depitotal

EUSKARAZETAMOL

Antzezlan

EZ DOK HIRU bikoteetrook



Azarok 14. larunbata
Ordua: 20:00h
Sutegin

Noaia
www.noaia.com



sarrera: aldez aurretik 6€ (Txiribogan eta Noaialko egoitzan salgai) Egunean bertan 8€.
Noaialko bazkideek 5€tan erosi ahal izango dute Noaialko egoitzan aldez aurretik

Albistea iruditan !!

Kontsumo kooperatiba aurrerabidean da

Herriko produktuak bultzatzeko kontsumo kooperatiba bat sortzeko asmoa du Udalak. Eredua ordea, herritarrekin batera erabaki nahi du gobernu taldeak. Horretarako, eta egitasmoa bera aurkezteko Udalak aste hasierarako bilkura deitu zuen Artzabalgo zahar egoitzan. Bilkura aretoan herritar taldea bildu zen, egin asmo dagoenaren informazioa jasotzeko eta herritarren ekarpenak proposatzeko. Lan talde bat ere osatu da, eta jada, bigarren bilkurarako hitzordua finkatu zuten. **Hurrengo bilkura, datorren astelehenean, azaroak 16, 18:30ean Artzabalgo zahar egoitzako bilkura aretoan.**



ASTELEHENEAN ELKARTU ZIREN ARTZABALEN; DATORRENEAN BERRIZ ELKARTUKO DIRA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

A GRIPEAREN ESPERIENTZIA **6. OR.**

EGUNKARIA AUZIA **8. OR.**

ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZAREN ALDE **9. OR.**

IMANOL AZPIROTZEKIN SOLASEAN **10. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Otar-Goxo
 Elkarlagiak

Zubiaurrena, nº2
 943 36 55 81
 20170 Usurbil

Kale nagusia, 10
 Telf: 943 37 33 48
 943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia
LABE-GOXO



IMANOL UBEDA

Grebak eta estrategiak

Irabaziak daudenean, nekez banatzen dira. Horrelakoetan, beti izaten dira garai txarrak, bereziki, etekinak zenbatzera ohituta daudenentzat. Inbertsio promesekin estaltzen dute euren berekoikeria. Baina galerak daudenean, kontu eta begirune gutxi. Horrelakoetan, beti ordaintzen dute betikoek. Hala izan zen, hala da gaur egun eta, zoritxarrez, hala izaten jarraituko du. Haizea dabil iraganaldetik.

Izan ere, krisiaren oinarria, halamoduzkoa ez al da izan. Txarrean, instituzio publikoen diru iturrietatik asetzeraz ohitu dira, garapen jasangarria eta antzeko definizioen izenean. Eta haizea alde dutenean, euren oparotasunean gizentzen dira, leher-tu arte. Eta lehertzean, instituzio publikoetara jotzen dute berriz ere... Eta horrela, *bucle* amaigabea. Baina galerak, beti ordaintzen dituzte betikoek.

Euren lanpostuak defendatzen temati ikusi ditugu Ingemarrek langileak. Tren geltokirako bidea egunero egin ohi dugunok, hortxe ikusi ditugu, goiz nahiz arratsalde, lantegiaren aurrean, ez dutela etsiko esan nahian edo.

Grebak beti dira zailak. Are zailagoak, denboran luzatzen direnean. Kaleratutakoak daude, batetik. Hauen ondoan, lankideak. Eta tartean, sindikatuak. Estrategiak finkatu behar, ekintzak iru-

dikatu, desorekan batasuna mantentzen saiatu, indarrak neurtu, kalerako bidea egin...

Badira greba, paro, mobilizazio deialdi... Eta antzekoetan, eramangaitzak zaizkidan bi gauza, dena den. Panfletoak, ehundaka, lurrera botatzeko ohitura eskasa. Noizbait, ekintza horren eragingarritasuna zein den neurtu beharko litzateke. Grebarako Plan Estrategikoa diseinatzen badute noizbait sindikatuak, ikerketa horren emaitzak gustura irakurriko nituzke. Akaso, oker nabil; hala bada, neure hitzak zuzendu beharko ditut. Bestea, itxaferoekin atentzioa deitzeko joera zabarra. Azkenaldian, gainera, ez al dira ugaldutxo itxafero-festak? Eguberriak ospatzeko, festak alaitzeko, golak iragartzeko, langileen haserre bideratzeko...

Eta nik gorroto ditut itxaferoak. Azken asteotan, nire nerbio-sistemaren kalterako, sustoren bat edo beste hartu dugu tren geltokirako bidea egin dugunok. Baina zarata egiteak, kasu honetan, konponbidean jarri badie Ingemarrekoei, gaitzerdi. Ze batzuetan, zarata egitea baina ez zaigu geratzen. Kasu horretan, hala ere, nahiago dut autoa eta megafoniaren xarma. Horretarako kantu egokiak badira, gainera, euskal kantutegian. Abestuz kalea hartu. Ba al da iraultza ederragorik? Hurrengo baterako, nik egingo dizuet kasete bat, nahi baduzue.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika !!

Aralar eta hondakinen atez ateko bilketa

Urri honetan Aralarrek, nire alderdiak, Biltzar nagusia egin zuen. Han hitz egin eta erabaki ziren gai garrantzitsuen arteko bat hondakinena izan zen. Alderdiaren zuzendaritzak ponentzia nagusian proposatzen zuenari emendakina zehatza aurkeztu nion. Nire emendakina ez zen botoetan aurrera atera. Esan beharrik ez dago Aralarreko kide naizen aldetik barruko bozketa- ren emaitzak onartzen ditudala. Hala ere, gai honi buruzko nire ikuspegia azaldu nahi dut publikoan. Iruditzen zait, gainera, Usurbilgo zinegotzi izanez hondakinen kontuan hila beteotan ikusi, ikasi eta landu dudana gainerako Aralar-kideei baliagarri gertatuko zaiela.

Europako legeek behartuta, batetik, eta beste- tik zabortegeak gainezka zeudelako, Gipuzkoako instituzio nagusiek etxeetako hondakinak intzinerazioaren bidez kudeatzea proposatu zutenean, eta errauskailua Zubietan kokatzea erabaki, Usurbilgo udalak arazoari beste aldetik heltzea erabaki zuen: hondakinen sorreratik. Aralarrek biltzarrean erabakitakoak ere garbi dio hortik atakatu behar dela arazoa.

Europako beste lekuetan eta batik bat Katalunian ezarritako atez ateko sistema aztertuta antolatuta zen Usurbilgoa. Martxan jartzeko bidean ez da zailtasunik falta izan, eta seguru aski sistema hobetu eta findu egin beharko dugu den-

borarekin. Baina emaitza ezin hobekak eskaini ditu hondakinen kudeaketa sistema honek, datuak hor daude eta Euskal Herriko beste udal askotan zalantzan daudenei indarra eman beharko liekete pauso horretan aurrera egiteko.

Ezin dugu aipatu gabe utzi Usurbilen badagola jende multzo bat, bide honen aurka dagoena. Erreferenduma eskatu dute, eta erreferenduma egingo da. Ni ziur nago probatu ondoren herriak baiezkoa emango diola sistema honi. Dena dela, herritar askok hartu dute parte sistema berriaren antolaketan, eta gai honen inguruan Usurbilgo elkartzitza hobetzeko balio izan du.

Badakit intzinerazioa ez den beste sistema finallista bat aipatu dela gure alderdian, gasifikazioarena. Baina orain arte horretaz azaldu diren informazioak kontutan hartuta, inolaz ezin da alderatu ez emaitzen aldetik, ez inbertsioen eta kostuen aldetik eta ez osasunarekiko errespetuaren aldetik, atez ateko bilketak eskaintzen duenarekin.

Beste hau ere entzuna dugu: "sistema honek Usurbilen bai baina beste lekuetan ez du balio". Atez ateko sistema European hiri handietan ere egiten dela esatearekin ez dira, nonbait, konformatzen batzuk. Behar bada konbentzitu dira jende kopuruz Usurbilen hiru halako den Hernanin laster martxan jarriko dutenean. Bide batez esanda, han ere Ezker Batua-Aralarren ize-

nean hautatutako zinegotziaren babesarekin.

Bukatzeko, "sistema honekin ere ez da arazo guztia konpontzen", hori ere esan da. Usurbilen lortu den emaitza (%82 berrerabiltzeko moduan biltzea) hobetzeko tartea badago, hori batetik. Baina bestetik, kontu honetan egia osoa esan behar da: atez ateko sistemak birtziklatu ezinik uzten dituen errefusak ez dira gehiago intzineradorak dena kixkali eta kutsadura sortu ondoren utziko dituen errauskak baino. Horregatik dago Zubietako errauste plantan aurreikusia azken zakarrentzako biltegia. Baina diferentzia handi batekin: atez atekoaren errefusak ez dira kutsagarriak eta teknologia aurreratu ahala horietako batzuk posible lirateke berrerabiltzea, baina intzineradorako azken zakarrak oso toxikoak lirateke.

Nire helburua ez da Alderdiaren zuzendaritzarekin eztabaidatzea. Oso bestela, alderdiak erabakita- koa errespetatuz, Aralarren izenean zinegotzi, alkate, biltzarkide edo parlamentari direnak animatu nahi ditut Usurbilen hondakinen kudeaketarako darabilgun sistema ezagutzera etor daitezen. Hemen hasierako esfortzu txiki batekin hondakinen tratamendu osoa aldatu dugu eta emaitzak ikusgarriak dira. XXI. mendeko Europako alderdi ezkertiarra den aldetik, Aralarrek bultzatu behar du hondakinak bildu eta kudeatzeko modu hau.

Lontxo Zubiria Kamino

“Babestuak sentitu gara”

Ingemarreko langileek eskerrak eman nahi dituzte

Ingemarreko langileek eskerrak eman nahi dizkiote Usurbilgo herriari eta Usurbilgo udalari. Ingemarreko greba mugagabea hilabetez luzatu zen. Egun horietan guztietan, “herritarrak interesatuta azaldu dira, mobilizazioetan hartu dute parte eta babestuak sentitu gara”. Alkatetzaren lana ere nabarmendu nahi izan dute. Alkatea Ingemarreko zuzendariarekin bildu zen, batez ere konponbidea lehenbailehen bideratu zedin. Ingemar atariko kabina ere, udalak jarri zuen langileen esku, greba eramangarriagoa egin zedin. Elkartasun keinu gehiago ere izan ziren mobilizazio egun horietan. Esate baterako, greban izan zirenean, tabernariak ogitartekoak eman zizkieten. Herritarrak oso ondo portatu direla



HILABETEKO GREBA MUGAGABEAN,
MOBILIZAZIO UGARI EGIN DITUZTE
INGEMARREKO LANGILEEK.

eurekin eta NOAUA!ren bidez eskerrak eman nahi dizkiete denei.

Iparaldeko laborantza, hitzaldi ireki batean aztergai

Ipar Euskal Herriko lurraldeak berezko instituzio batean aitortuak izatea eskatzen ari dira aspaldi. Nekazaritza arloan erakunde propioa onartzen ez zietela ikusirik, ELB sindikatuko laborariak Euskal Herriko Laborantza Ganbera sortu zuten 2005ean.

Aitzagaren eskutik

Maritxu Lopepe kazetaria da, nekazaritza arloan aditua, eta Aitzaga Elkartearen ekimenez hitzaldia eskainiko du azaroaren 19an osteguna, arratsaldeko 19:30ean Sutegin. Sarrera doan.

Ika-mika !!

Ezker Abertzalearen oinarri sozialari

Kaixo Lagun! Azken hilabete luzeetan Ezker abertzale osoa hausnarketa eta eztabaida sakon batean murgilduta egon da. Hausnarketa prozesu horrek behar bati erantzuten dio: fase politikoaren eta estrategia independentistaren argipena egitea, horren arabera ildo politiko eraginkorra jorratu ahal izateko.

Gaur egun bizi dugun egoera azken hogeita hamar urteotan lortutako garaipen nagusi baten ondorio dela nabarmendu behar dugu: Francoren osteko erreforma eta hortik eratorritako amaraun juridikoa eta politikoa (Euskal Herria irenstea eta asimilatzea helburu zuena) ez dute egonkortzea lortu, eta beraz, sakoneko aldaketa demokratikoaren aukerari eutsi diogu. Eutsi bakarrik ez, marraztu ere marraztu egin baikenuen, hutsuneak hutsune eta akatsak akats, azken negoziazio prozesuan. Halaber, hamarkadotan, konponbide demokratikoaren osagaiak jendarteratzea lortu dugu.

Guztiarekin, Euskal Herria aldaketa politikoaren atarira ekarri dugu. 30 urte geroago, aldaketaren atea zabal-zabalik da. Hori da egin beharreko lehen azterketa, azterketa baikorra, nahiz eta jakin, ondo baino hobeto jakin ere, egindako bidea gogorra izan dela eta egungo

egoera errepresiboa oso latza dela. Hamarkadotako borrokaren bidez zabaldutako ate hori zeharkatu eta aldaketa politikoa gauzatea da orain erronka. Badago horretarako nahikoa baldintza. Baldintza horiek aldaketa politikoa gauzatu eta Euskal Estatuaren erakuntza faseari ekitea ahalbideratuko duten indar metaketan eta indar-harremanan bihurtzean datza gakoak; konfrontazioa Euskal Herria/Estatuak terminoetara eramango duen estrategia eraginkorra zehaztean.

Horixe da, izan ere, hausnarketa honen helburua: fase politikoa argitu, aldaketa politikoa gauzatzeko estrategia eraginkorra diseinatu eta askapen prozesuan urrats erabakigarri bat egitea.

Zentzu horretan, hausnarketa gure oinarriarekin konpartitzera eta honen inguruko ekarpen eta iritziak jasotzera goaz datozen egun/asteetan. Herritar Batasuna osatzen dugun guztion iritzi eta ekarpenak jasotzea ezinbestekoa ikusten dugu guztiok batera aurrera egin dezagun.

Lehen batzarra, azaroaren 21ean egingo dugu. Hona hemen barne-eztabaida honetako metodologia eta egutegia.

Herri Batzarrak I

(Azaroak 21, larunbata, 16:00etan Sutegin)

0. Sarrera. Hausnarketaren kokapena.

1. Hausnarketaren eta Batzarraren metodologia.
2. Azalpen orokorra.
3. Interbentzioetarako tartea.

Herri Batzarrak II (Abendua)

0. Iritzi orokorrak.

- Iritzietarako tartea ireki.

1. Egungo egoeraren azterketa.

Azalpen laburra.

- Iritzietarako tartea ireki.

2. Fasearen ezaugarritzea. Azalpen laburra.

- Iritzietarako tartea ireki.

3. Prozesu Demokratikoa. Azalpen laburra.

- Iritzietarako tartea ireki.

Herri Batzarrak III (Urtarrila)

1. Ondorioen aurkezpena.

2. Plangintzaren aurkezpena.

Zure parte hartzea ezinbestekoa da, animatu eta egin zure ekarpena.

A gripea, nabarmen eraldatu den izurritea

Pako Agudok uztailean pasa zuen eta bere esperientzia azaldu digu

Udaberrian lehen aldiz entzun genuenetik, A gripea prebenitu edota tratatzeko moduak nabarmen aldatu dira. Hilabete gutxiren buruan, beldur edota larritasun egoerei, beharrezkoa zen bezala, normaltasuna gailendu zaie. Aldaketa horien guttien lekuko izan da, Pako Agudo herritarra. Uztailean pasa zuen A gripea. Gaur arte gaiak eman duenaren errepasoa egiten du datozen lerrootan.

NOAUA! Zeure kasuan, lehen sintomak zeintzuk izan ziren?

Pako Agudo. Eztula. Automatikoki niri jo zidaten kasu konfirmatu bezala, probarik egin gabe, bikote lagun ohiaren semeak positibo eman baitzuen. Larrialdi zerbitzuetara joan nintzen. Ingresatu edo ez baloratu behar zuten, pneumonia izango ote nuen beldur ziren eta. Neronek ere bronkioetako arazoak izan ditut, erretzailea naiz, galdategi batean lan egiten dut. Nik uste Euskadin lehenengoetakoa izan nintzela, baieztatu-tako hirugarren kasua edo.

N. Zer protokolo aplikatu zuten medikuek?

P. A. Hasieran larri pasa nuen, denok bezala ezjakintasunagatik. Ospitalera joan nintzenean, larrialdietara sartu gabe egon nintzen, kanpoan maskara jantzita. Protokoloaren arabera, bakartu egin behar zidaten. Oraindik gaixotasun berria zen eta medikuek ez zekiten nola jokatu. Bi aste pasa eta protokoloa zeharo aldatzen zieten.

N. Baina aipatu moduan, probarik ez zizuten egin?

P. A. Ordurako protokoloa aldatzen ari zen. Bazekiten A gripea indartsua izango zela. Ondorioz gaur egun ezin diote mundu guztiari



PAKO AGUDOK ESAN DIGUNEZ, "NIK USTE EUSKADIN LEHENENGOETAKOA IZAN NINTZELA, BAIEZTATUTAKO HIRUGARREN KASUA EDO".

proba egin. Askok seguru gripea pasa dutela, jabetu ere egin gabe. Azkenean, sukarrarentzat parazeta-mola eman zidaten.

BERROGEIALDIAN, 10 EGUNEZ

"Eztula eta txistuarekin kutsatzen denez, sintomak kendu arte berrogeialdian egon behar izan nuen"

Eztula eta txistuarekin kutsatzen denez, eztul eta sintoma horiek kendu arte berrogeialdian egon behar nintzen, hamar egunez.

N. Medikuek ere oso galduta ibili ziren beraz?

P. A. Niretzat bai. Haien artean ere desadostasun handia zegoen. Beraiek ere ziur nola jokatu ez zekitenez, hortik dator guban sortu den konfiantza falta. Ez zen gaixotasun larria, baina larrialdietara joan eta ezin zinen

barrura sartu, kanpoan geratu behar nintzen maskara jantzita. Gripe normalak hainbeste heriotza eragiten baditu, eta A gripeak gutxiago, zergatik ateratzen dira A gripearekin hil direnen kasuak soilik? Denoi helarazi digute beldur hori. Aitak esaten zidan, Mexikon egon gabe, eta base-rrian txerririk izan gabe ia nola gaixotu nintzen. Pentsa nola zegoen zabal-duta. Ni gaixotu eta astebetara, San Fermin jaietan kasu gehiago agertu ziren. Pentsa zenbat jende egongo zen bertan. Hortik, begira noraino ailegatu garen hilabete gutxitan.

N. Betiko gripea baino errazago kutsatzen dela, hori litzateke A gripearen berezitasunetako bat ezta?

P. A. Txarrena hori du, segituan kutsa zaitezkeela. Medikuek beti esaten zidan eskuak garbitzeko. Etxean egin dezakezu, baina kalean nola egin? Ezinezkoa da.

N. Ordutik hiru hilabeteotan, gai-

xotasuna tratatzeko modua zertan aldatu dela esango zenuke?

P. A. Orain normaltasun osoz hitz egiten da gai honen inguruan. Hasiera batean, gaixotutako bakarra nintzela zirudien. Orain konturatzeko, edonor gaixotu da. Lehen beldurra eragiten zuena, orain normaltzat jotzen da. Egun nolakoa den jakinda, ezin gara kikildu gripe batekin.

N. Egungo ikuspegitik, injustua iruditzen zaizu zuk bizi izan zenuen egoera?

P. A. Ulertzen dut, ezjakintasuna nagusitu zen. Hasiera zen, ez zekiten nola jokatu. Bakunari buruz hitz egiten ari ziren, oraindik A gripea hona ailegatu ez zenean. Niri hori egokitu zitzaidan.

PREBENTZIO NEURRIAK

Prebentzio neurriak ondo daude baina Pako Agudoren ustez, "gripez kutsatu behar baduzu, kutsatuko zara"

N. Komunikabide bat baino gehiagotatik jarri gara zurekin harremanetan. Jada, gai honetaz hitz egiteaz aspertuta egongo zara?

P. A. Badirudi ezin duzula ahaztu. Uztailean gaixotu nintzen. Orduetik oporretara joan naiz, bueltatu naiz, gripea gainean daramadala dirudi. Zure aurpegia ikusten duzu leku guztietan, badirudi nik ekarri dudala gripea herri honetara.

Halere, ulertzen dut, ez dut inolako kezarik.

N. Zer gomenda diezaiokezu A gripea duen herritarrari?

P. A. Prebentzio moduan aipatutakoa, eskuak garbitzearena. Kontziente izan behar zara nola transmititzen den gripea, txistu eta ezturekin. Eztula egin behar izanda ere, eskua jarri eta gero eskuak garbitu. Baina ez erotu; gripez kutsatu behar baduzu, kutsatuko zara.

Gomendioak, betiko gripearen parekoak

A gripeak izan duen eboluzioa ikusita, protokoloan aldaketak txertatu behar izan dituzte azken hilabeteotan. Gomendioei dagokienez, honakoak dira pasa den iraila hasieratik Eusko Jaurlaritzako web orrialdean A gripearri eskaintako atalean argitaratuak dauden aholkuak. Betiko gripearekin hartu beharreko neurriak proposatzen dituzte. Honakoak:



ESKUAK SARRI GARBITZEKO GOMENDIOA OSO BALIOGARRI DA.

- Etxean geratu.
- Eztula edo doministiku egiterakoan ahoa estali.
- Erabili eta botatzeko mukizapiak erabili.
- Eskuak sarri garbitu ura eta xaboiarekin.
- Logela aireztatu, leihoak zabaldua.
- Antibiotikorik norbere kabuz ez hartu. Sukarrarentzat paracetamola.

- Medikurengana noiz joan?

Haurren kasuan: arnasa hartze-ko zailtasunak, erupzioak larruazalean, jateko gogo eza...

Helduen kasuan: arnasa hartze-ko zailtasunak, mina edo presioa bular edo sabelaldean, zorabio iraunkorra...

Arrisku talde hauetako kide izanez gero: haurdun dauden emakumeak, bihotz edo arnas gaixotasun kronikoak dituztenak...

Berrogeialdia, pasa da

Egoera bat gizarteratzea terapeutikoa, lagungarria izaten omen da, eta gaixotasunekin zer esanik ez. Gaixotasunen batekin kutsatu dena bakarra bada, hura da desberdina, arraroa, kutsakorra, isolatu beharrekoa, salbuespena... Aldiz, salbuespenari beste salbuespen bat gehitzen badiogu, eta hari beste bat, eta beste bat... A gripearekin antzeko zerbait gertatu dela dirudi. "Nik ere A gripea dut" onartu dutenen kopurua gehitzen joan den neurrian, desagertze aldera jo du izuak. Lehen gorriz margotzen zituzten gripe kasuren bat zuten lurraldeak. Izena ere hainbat alditan aldatu zioten gaixotasun honi; lehenbizi txerriek zuten errua, gero berritasunak eta azkenik alfabetoak. Eta orain, balantzak

beste aldera egin du. Gripedunen kluba inoiz baino jendetsuagoa den honetan, pasa ez dutenak dira orain gripea noiz etorriko zain daudenak. Gripe honen sintomarik pasa ez dutenak gorriz margotzea errazagoa da orain.

Tamifluari betiko aspirinak hartu dio lekukoa

Betiko gripea baino arinagoa dela argi utzita, amaitu da beraz ikara eta interes hau baliatuta, baten batzuk egin nahi zuten "negozioa". Bukatu dira kutsatu eta hildakoen zenbaketak, bakartzeko aginduak. Tamifluari betiko aspirinak hartu dio lekukoa. Normaltasuna ailegatu da, "berrogeialdia" pasa da. Hau ere gaingitu dugu ba, hurrengo etorri arte.

Joan Mari Torrealdaik Egunkaria auziaren inguruko hitzaldia eskainiko du datorren astean

Azaroaren 20an, Egunkaria auziaren inguruko bideo bat eskainiko dute Sutegin. Ondoren, Joan Mari Torrealdaik hitzaldia eskainiko du areto horretan bertan. Laster hastekoa da epaiketa eta herrian babes talde bat jarri da lanean. Torrealdairen hitzaldia antolatzeaz gain, laguntza bonoak eta kamisetak ere atera dituzte.

2003an, Joan Mari Torrealdai Euskaldunon Egunkariako administrazio kontseiluko presidentea zen. Madrilgo Audientzia Nazionalaren aginduz, egunkaria itxi eta Administrazio Kontseiluko kideak atxilotuak izan ziren. Euskalgintzak jasan duen eraso bortitzenetakoa izan zen.

6 urteko amesgaiztoa

6 urte eta erdiren ondoren, Iñaki Uri, Martxelo Otamendi, Xabier



AZKEN KANTUJIRAN, "EGUNKARIA LIBRE" PANKARTAREKIN IBILI ZIREN KANTUAN. AZAROAREN 20KO HITZALDIA 19:00ETAN HASIKO DA.

Oleaga eta Txema Auzmendirekin batera epaituko dute Auzitegi Nazionalen hastekoa den auzian.

12 eta 14 urte arteko kartzela zigorri egin beharko diote aurre. Epaiketa

horren bidegabekeria salatzen, hainbat elkarretaratze egin dira egun haueetan Donostian. Geroztik, hainbat esparrutako profesionalak egin dute bat Egunkariako auzipetuekin.

Usurbil Bizirik-ek bilkura deitu du, larunbat honetarako

Larunbat honetan, azaroak 14, bilkura burutuko du Usurbil Bizirik plataformak. Hitzordua, 12:30ean finkatu dute Mikel Laboa plazan. Informazioa partekatzeaz gain, aurrera begirako ekimenen berri emango dute. Galde erantzunen tartea ere izango da. Ekitaldi hau Erle Egunean egitekoak ziren baina eguraldiak ez zuen lagundu eta hortik atzerapena. Beraz, larunbat honetan egingo da Usurbil Bizirik-ek deitutako bilkura irekia.

Manifestaziorako deia

Aurrera begirako ekimenen artean, bat azpimarratu nahi dute bilgunetik; azaroaren 28an Donostian burutuko den manifestazioa. 17:00etan irtengo da Anoetatik, errausketaren aurkako plataformen koordinadorak deituta.



Gipuzkoako hainbat herritan Diputazioak egin dituen parte-hartzean gtrebatzeko ikastaroak iruzur hutsa direla salatu dute Jaizkibel Bizirik-ek, erraustearen aurkako taldeen Gipuzkoako Koordinakundeak eta AHT abiadura handiko trenaren aurkako Donostiako taldeak. Administrazioak estrategikotzat jotzen dituen gaietan, azpiegituren kasuan adibidez, herri-galdeketa gitea sailhesten ari delako. Larunbatean egin zen protesta-ekitaldia.

Aniztasuna eta elkarbizitza ardatz hartuta, hausnarketa prozesua zabaldu nahi da herrian

Norbere jatorria edozein izanda ere, udalerriko herritar ororen eskubide guztiak bermatu eta elkar onartzeko bidea zabaldu nahi da Usurbilen. Horretarako hausnarketa eta sentsibilizazio prozesua abiatzeko asmoa dute egitasmo honen lanketan elkarlanean diharduten Anitzak elkarteak eta Udalak. Lehen urratsa emana dute jada; eragile sozial zein herritarrei zuzenduta, azaroaren 16rako Sutegin deitu duten bilkura.

Migrazio-fluxuek eragiten duten jatorri aniztasuna ardatz hartuta, hausnarketarako bidea ireki nahi du Udalak, eta harekin batera elkarlanean, Anitzak elkarteak. Aniztasuna ikuspuntu positibotik jorratu nahi da jatorri desberdina duten herritar eta eragileekin, eta modu horretan, arazo hitzarekin sarri egin ohi den lotura hautsi.

XABIER MIKEL ERREKONDO

“Ziur gaude halako pausoak nahitaezkoak direla guztion artean herri justuagoa eraikitzeko”

Bizikidetzak demokratiko eta justua lortze aldera, herritarren elkarrenganako onarpena bultzatu nahi da abiatu nahi den prozesuaren bidez. Eta elkarren aitortza horretan oinarritutako politikak bultzatzeko baldintzak sortu, ekimenaren eragileek azaroaren 3an udalbatza aretoan burutu zuten aurkezpen saioan adierazi zuten. Aniztasuna aintzakotzat hartuko duen elkarbizitzarako dei egiten zen bertan. “Ziur gaude halako pausoak nahitaezkoak direla guztion artean herri justuagoa eraikitzeko eta aniztasun horren onarpenetik elkarrekin bizi



AINARA URIBE ONGIZATE ALORREKO ZINEGOTZIA, XABIER MIKEL ERREKONDO ALKATEA, ETA ANITZAK ELKARTEKO KIDE AMAIA BENITO ETA XAN MOURIÑO.

ahal gaitzen”, adierazi zuen Xabier Mikel Errekondo alkateak.

Aniztasunaren Eguna

Aipatu prozesuak parte hartzaile eta gehitzailea izatea ahalbidetu nahi dute eragileek, migratzaile zein gainerako herritarrek barne hartuko dituen.

Pausoka jorratu nahi dute bidea. Udalerriari argazki bat aterako dion diagnosa egin nahi da lehenik eta emaitzak eskuratu ostean, jendaurrean aurkeztu. Sentsibilizazio, eztabaida eta gogoeta guneak sortzea litzateke gerora eman nahi den urratsa. Aurkezpen saioan ongizate alorreko zinegotzi Ainara Uribek modu hone-

tan definitu zuen gune horiek sortzeko duen garrantzia; “Usurbilgo herritarren artean mesfidantza gainditzeko lehenengo urratsa”.

Hausnarketarako saioak jardunaldi batzuen inguruan antolatzeko asmoa dute Udalak eta Anitzak elkarteak. Bertan, migrazioari lotutako kultur eta hizkuntza aniztasuna jorratu nahi dira, baita herrien arteko elkartasun, lankidetzak eta kooperazio gaiak ere. Pasa den astean iragarri zuten zuzenean gainera, sentsibilizazio gai honi jaialdi kutsuko egunarekin, Aniztasunaren egunarekin eman nahi diete amaiera. Tartean, “Anitzak Hitzak” hip hop eta bertsolaritza bateratzen dituen ikuskizuna ezagutzeko aukera egongo da.

Lehen urratsa, aurkezpen bilkura

Egitasmoaren nondik norakoak aurkezteko bilkura deitu du Udalak, azaroaren 16rako. Eragile sozialei zein gaiarekiko interesa duen herritar orori zuzendua, antolatzaileek 18:00etan Sutegiko auditorioan finkatu dute hitzordua. Datorren asterako iragarria dagoen

saioa, zabaltzear den prozesu horretan emango den lehen urratsa izango da, eta aurkezpen ekitaldian eragileek azpimarratu zuten, “gainerako herritarrekin batera, migratzaileen parte hartzea bultzatu eta dinamikak sortu eta sustatzeko abiapuntua”.

“Kalean ere, errauste-plantaren aurka agertu behar dute herritarrek”

Errausketa baztertu eta gaikako bilketa bultzatuko lukeen Hondakinen Euskal Legea onartzeko lanean jardun dira errausketaren aurkako herri plataformak. Tartean, herritarren 35.000 sinadura bildu eta Eusko Legebiltzarrera eramán zituzten, baina ez dira aintzakotzat hartu. Aurrera begira, lanean jarraitzeko asmoa agertzearekin batera, azaroaren 28rako Donostian manifestazioa antolatu dute. Deialdiarekin bat egiten du udal zinegotzi eta Mankomunitateko lehendakari orde Imanol Azpirotzek ere.

NOAUA! Hondakinen kudeaketari lotutako erreferenduma baimendu dute. Udalak aldiz jakinarazpen ofizialik ez du jaso?

Imanol Azpirotz. Ofizialki jaso ez arren, gustura hartu dugu berri hori. Gainerakoan, konbentzituak gaude usurbildarrek atez atekoa bilketa egoki bezala ikusi dutela, eta horrek une honetan ere lan handia egiten jarraitzea eskatzen du.

N. Herritarren 35.000 sinadura ez dituzte kontuan hartu Eusko Legebiltzarrean. Aldiz, erreferenduma herritarren parte hartzearen eredu gisa definitu dute batzuk.

I.A. Askotan esaten da parte hartze prozesuak bideratu behar direla baina gero halako lan bat egiten denean ez da aintzakotzat hartzen. Duela hilabete batzuk, Batzar Nagusietako ordezkariak kezkatu zeuden kaleratutako inkesta batean, oso urrun daudelako biztanleria eta politikarien arteko tartea. Normala, herritarrek bere lana egin, sinadurak bildu eta aintzat hartzen ez badira... Hainbat erakundeetatik euren eredu eta inbertsioak ziurtatzera doaz. Herritarrek zer pentsatzen duten bost axola zaie.

N. Azaroaren 28rako manifestaldia deitua dago Donostian.

I.A. Une honetan, jende asko etsita



ALTERNATIBEN ALDE ETA ERRAUSKETAREN AURKA AZALTZEKO DEIA EGIN DU IMANOL AZPIROTZEK.

egon arren, borroka hau irabazteko aukera guztiak ditugu, jendea mobilizatzea lortu behar dugu. Usurbildarrak benetan erronka bat bezala hartzea animatuko nituzke, atez ateko bilketarekin erakutsi bezala, kalean ere errauste plantaren aurka agertu behar dute. Errauste planta gelditu nahi badugu, lerro askotan lan egin behar dugu; alde batetik alternatibak martxan jarri behar ditugu, baina errauste plantari ezezkoa eman eta horren aurka borrokatu behar dugu.

IMANOL AZPIROTZ

“Oiartzun eta Hernanik atez atekoarekin bat egiteak beste inflexio puntu bat suposatu du”

N. Erraustegia aipatuta, zertan da proiektua?

I.A. Arlo juridikoan, dena errekurritzen ari gara. Duela bi urte Usurbilgo Udalak jarritako helegite bati partzialki arrazoia eman zaio. Epaia araberan, Partzuergoko kide izan gabe, Txingudik erraustegiaren proiektuan eta errauste plantara joateko bideak proiektuan txertatzeko bozketan parte hartu zuen.

Epaia araberan Partzuergoko kide izan gabe ezingo luke bozketa saioetan parte hartu, beraz hartutako erabakiek nuloak behar lukete. Beraiek badakite gauza asko legez kontra ari direla egiten, baina hala ere aurrera jotzen dute. Bestalde, Oiartzun eta Hernanik atez ateko bilketarekin aurrera doazela esateak beste inflexio puntu bat suposatu du. Horrek erraustegiaren aldeko kristoren dardara eragin die, ikusi baitute beren eredu kinka larrian jar dezaketela. Beren mezu guztietan, atez atekoaren bueltan kezka eta irudi ezkorra sorrazazi nahi dute, baina Usurbilen lortutako datuen aurka ezin dute ezer egin.

N. Hernani eta Oiartzungo udalek atez ateko bilketa martxan jartzea erabaki dute. Lasarte-Oriakoak aldiz ez. Guztia Mankomunitate bereko udalerrietan. Nola baloratzen duzue?

I.A. Behin ere ez nuen gehiegi sinestu Lasarte-Oriak aurrera joko zuenik. Baina konturatuko dira, arazo ekonomikoengatik besterik ez bada ere, atez atekoa jarri beharra dutela. Ez dago zaborra gutxitzeko beste modurik. Errauste planta egin nahi dutenak saiatu dira bosgarren edukiontzia zabaltzeko eta eredu garritzat jotzen.

“Oraindik hobetzeko dezente daukagu”

Baina horrek, asko jota herritarren %15arentzat balio du, gainerako %85entzat ez, jendeak ez baitu erantzuten. Ondorioz, %35etik gora gaika biltzea ez da lortzen. Esperientzia pilotuok guztiok ordaindu izan ditugu, baita Usurbilek ere.

ERRONKAK, HERRIAN BERTAN

“Poligonoen lanketa urtarrilean hasi nahi dugu. Beste erronka potoloa, Urbil izango da”

Baina udal bakoitzak ordaindu behar dutenetik, bosgarren edukiontzien bilketa zalantzan dago. Amarako esperientzia Intxaurrendora zabaldu nahi zuten Donostian, eta orain Amarakoari eusten nahiko lan izango dute.

N. Oiartzuarrak eta Hernanikoak izan dira egunotan atez ateko bilketa ezagutzen. Zein inpresio hartu dute?

I. A. Oro har oso gustura geratu ziren gehienak eta horrek udalerrian ekin behar dioten prozesua abiatzeko beste indar bat ematen die. Oiartzundik hiru alderdietakoak etorri ziren, ezker abertzale, EAJ-PNV eta H1eko ordezkariak. H1ekoek kontrako jarrera argia dute. EAJ-PNVkoa harrituta geratu zen, ez zuen espero halakorik biltzen zenik.

N. Birziklatze mailak %80ko muga gaindituta, egun zer dago hobetzeko?

I. A. Oraindik hobetzeko dezente daukagu. Gure proiektua ez dugu bere osotasunean burutu. Poligonoen lanketa urtarrilean hasi nahi dugu. Beste erronka potoloa, Urbil izango da. Bertan, datoren urtetik aurrera, Udalak hondakin zati guztiak biltzea nahi genuke; herritarren ahalegin bera egitea merkatal gunean ere. Bestalde, plastikozko poltsak gutxitzeko kanpaina ere abiatuko dugu. Autokonpostajea ere bultzatu behar dugu; ikastaroak egin eta konpost gailuak banatu. Konpost gunea ere lortu nahi

genuke, baina alde guztietatik kontra ari zaizkigu; hirigintza erabakien edota finantziazioaren aurka doaz. Erakutsiko diegu, atez atekoarekin bezala, konpostatzea ere lortuko dugula. Hori guztia egin da, egungo emaitzak askoz gehiago hobetu daitezke.

Datozen deialdiak

Azaroak 17-22, asteartetik igandera: Reziklarte, eduki ontziak artelan bihurtuta. Hondakinen kudeaketari buruzko informazio gunea, frontoian eta Dema plazan.

Azaroak 28, larunbata: Errausketaren aurkako manifestazioa Donostian. Antolatzaileak, errausketaren aurkako herri plataformak.

Azaroak 29, igandea: bigarren eskuko azoka, frontoian eta Dema plazan. Antolatzailea, San Markosko Mankomunitatea.

Erle Eguna erauntsi artean ospatu zen

Euriak ez zuen urteroko hitzordu Egozoena zapuztu. Talogileak horre ziren, ohi baino gutxiago, baina baita gozogintzako postuak ere. Udarregi ikastolako ikasleek ikasturte amaierako bidaiara joateko laguntza ere jasoko zuten prestatuak zituzten postreekin. Eguraldi txarra tarteko, ohi baino partaide gutxiagorekin, baina ezti lehiaketa ere ospatu zen. Ezti poto ilun, argi eta milaloreko onenak saritu zituzten txapela banarekin. Ikastolako ikasleek parte hartu zuten marrazki lehiaketako artelan onenak ere saritu zituzten. Euskal Herriko Ezti Lehiaketara 53 ezti poto aurkeztu ziren.

Ezti argiaren saria Miren Lizasoainek (Lesaka) eskuratu zuen.

Ezti ilunekoan, Ageda Zeberio (Segura) nagusitu zen.



IRUDIAN, AURTEN SARITUAK IZAN DIREN EZTI-EGILEAK ETA ANTOLATZAILEAK.

Lore anitzeko eztiaren, Jesus Aranburu (Ereñotzu) izan zen saritua.

Enkantean, hiru ezti potoen eskuratzailerak Josean Eizmendi sukaldaria izan

zen (Ibaetako Illarra jatetxekoa), 2.500 euroren truke. Gozogintzako lehiaketan, Jon Etxabe nagusitu zen eta Joseba Pellejero bigarren izan zen.

Bossa nova doinuak eta antzezlan dibertigarria, Kulturaldiaren azken txanpan

Kulturaldiaren astea da hauxe. NOAUA! Kultur Elkarreak antolatatu duen ziklo honen baitan, "Usurbilgo ondarea ezagutzen" liburua aurkeztu berri da Artzabalén. Ostegun honetan, hilak 12, diaporama baten bitartez, Etiopiara bidaiatu ahal izan dugu. Asteburua ere, Sutegin pasatzeko modukoa da. Zura taldearen kontzertua izango da ostiralean eta Ez Dok Hiru Bikoteatroen azken antzez-lana larunbat iluntzean. Badaezpada, aldeztu aurretik eskuratu sarrerak. Azken orduan sartu ezinik geratu nahi ez baduzu behintzat.

Ostiral honetan, Zura taldekoak ari-tuko dira Sutegin. Bidasoaldekoak dira. Euren proposamenak txundituta utzi ditu zaletu eta aditu asko. Bossa nova eta sanba estiloak euskaraz ere ederrak izan daitezkeela erakutsi digutelako. "Kiribil" diskoa 2008ko interesgarri-erretakoa izan zen Berria egunkariko adi-tuentzat. Lan hori aurkeztera etorriko dira ostiral honetan, hilak 13, Sutegira. Sarrerak, aldeztu aurretik, Txiribogan eta NOAUA!n jarri dira salgai, 6 eurotan.

Bukatzeke, antzerki saioa

Euskal eszenak eman duen bikote selebreena izango da Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak osatzen dutena. Irribarrea ahoan aterako dira larunbat honetan Sutegira hurbiltzen diren guz-tiak. "Euskarazetamol" antzez-lana eskainiko dute. Sarrerak 6 eurotan daude aldeztu aurretik salgai, Txiribogan eta NOAUA!n.



PATXO TELLERIA ETA MIKEL MARTINEZ, LARUNBAT HONETAN SUTEGIN IZANGO DIRA "EUSKARAZETAMOL" ANTZEZLANAREKIN. SARRERAK SALGAI DIRA NOAUA!N ETA TXIRIBOGAN (BAZKIDEENTZAT, 5 EUROTAN BAINA ALDEZ AURRETIK ETA NOAUA!N).



BRASILDAR KUTSUKO DOINUAK LANTZEN DITU ZURA TALDEAK. OSTIRALEAN SUTEGIN ARITUKO DIRA.

libre!

manáan libre! hiri ahal izateko Egunkaria Libre manáan hiri ahal izateko

Egunkaria auzia. Epaiketaren atarian.

- Bideo emanaldia.
- Hitzaldia: Joan Mari Torrealдай.

Azaroak 20, ostirala 19:00etan Sutegin.

www.egunkaria.info



25 urteak ospatu behar dira

Urteurrenaren harira, Zumarte Musika Eskolak ekitaldiak antolatu ditu

Ospakizun egunak dira Zumarte Musika Eskolan. 25 urte bete ditu aurten. Hezkuntza zein kultur mailan, erreferentzia garrantzitsuan bihurtu da Musika Eskola. Santa Zezili egunaren bueltan, hainbat ospakizun ekitaldi antolatu dituzte.

Musika Eskolako ikasleak izango dira urteurren ospakizunetako lehen protagonistak. Asteartean, azaroaren 17an, Zumarteko talde instrumentalak eta abesbatzak arituko dira Sutegin. Donato Goyeneche perkusio taldearen saioarekin eta Santa Zezili eguneko kalejirarekin osatzen da urteurren ospakizunetako egitaraua.



ZUMARTEKO TALDEEN KONZERTUAREKIN HASIKO DIRA OSPAKIZUNAK.

Zumartek antolatutako saioak

AZAROAK 17, ASTEARTEA
Zumarteko taldeen kontzertua
18:30ean Sutegin, sarrera doan

Musika Eskolako talde instrumentalak eta abesbatzak. Ekitaldiaren amaieran, logotipo lehiaketako irabazlea nor izan den emango da ezagutzera.

AZAROAK 18, ASTEAZKENA
Donato Goyenecheren
perkusio-kontzertua
18:00etan Sutegin, sarrera doan
Antolatzaileak: Zumarte, Kutxa.

AZAROAK 19, OSTEGUNA
"Musikalean" kalejira

18:30ean, irteera Zumartetik
Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearen (www.ehme.eu) laguntzarekin batera antolatuta, Euskal Herriko Musika Eskola guztiak kalera irtengo dira egun eta ordu berean "Musikalean" izeneko kalejiran Santa Zezili eguna ospatzeko.

Usurbilen Zumarte Musika Eskolako txaranga, txistulariak eta trikitilariak arituko dira kalejiran.

Sari banaketa



Txus Monterrosok 500 euroko erorsketa-txartela irabazi du Otar Goxon egin den azken zozketan. Zorionak!

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725



txirriStra

KONTBEJUZARRA 13

943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Usurbilgo pilota elkarteak irabazi du 2. Mailako Pala Motzeko Txapelketa

Gipuzkoako Pala Motzeko Txapelketa irabazi dute Oidui Usabiagak eta Jon Arrutik. Garaipen honi esker, datorren urtean pala motzeko lehen mailan arituko dira. Zorionak!

Gipuzkoako pilota elkarten artean, pala motzeko txapelketa jokatzeko da. 2. mailako finalean, Oidui Usabiaga eta Jon Arruti nagusitu dira aurten. Txapela eta garaikurra etxeratu dituzte; hori gutxi balitz, datorren denboraldian pala motzeko txapelketan, lehen mailan jokatzeko txartela eskuratu dute. Irudian dituzue irabazleak eta Usurbilgo pilota elkartearen izenean, Eñaut Aizpuru, saria eta alaba eskuetan dituela.



OIDUI USABIAGA ETA JON ARRUTI IZAN DIRA 2. MAILAKO IRABAZLEAK.

Herritar ugari Behobia-Donostian

Etxean geratzeko moduko denboralea egin bazuen ere, korrikalari pilo bat animatu zen pasa den igandean Behobia-Donostia lasterketa osatzera. Emaitzei erreparatu,

herritar hauen denborak aurkitu ditugu. Antolatzaileen webguneko bilatzailean, Usurbil, Aginaga eta Zubietan klikatuz topatu ditugun izenak dituzue hauexek.

IÑAKI GERICA JUAN	01:12:53
JON TAPIA LIZARRAGA	01:17:13
KOLDO MANTEROLA AIZPURUA	01:17:25
JOSE MARI SEOANE MAYOZ	01:21:13
JUANJO ESTEVEZ MARTIN	01:23:31
ALEX UDABE PAGOLA	01:25:02
XABIER ORBEGOZO MUJIKI	01:25:51
IDOIA EZEIZA IRURETAGOiena	01:25:56
PATXI MARIN ISASA	01:26:52
IBAN MARITXALAR ELIZONDO	01:27:21
TITO IZAGUIRRE GODINEAU	01:28:41
ARANTXA EIZAGIRRE ZALDUA	01:29:02
JUAN MARI AGOTE GOIARAN	01:29:27
ARKAITZ REZOLA MENDIKUTE	01:29:32
PELLO ZUMETA BERAETXE	01:30:07
JUAN CARLOS PEREZ LIZARRALDE	01:30:21
JOSEBA K. ZUBIZARRETA IRAZUSTA	01:31:05
F. JAVIER RODRIGUEZ CUENCA	01:31:44
GUILLERMO RUEDA ETXEBERRIA	01:32:27
ALFONSO LÓPEZ GARCÍA	01:32:47
JOSEBA REZOLA EIZAGIRRE	01:33:39
IKER MUGURUZA PIKABEA	01:34:01
JOSE MANUEL IÑARRA FERREIRA	01:34:32
AITOR JAUREGUI URDAMPILLETA	01:34:54
LUCAS ARROSPIDE JAUREGUI	01:35:52
MIKEL ARRILLAGA AZKARATE	01:36:27

JOSU PORTU ALZAGA	01:38:19
JON ALEJO TOLEDO	01:38:25
IÑAKI ETXEBARRIA ORBEGOZO	01:40:32
ANDONI LABACA LIZARAZU	01:40:36
IÑIGO TELLERIA ELOLA	01:42:09
ALAZNE OLAIZOLA IPARRAGIRRE	01:42:31
EDUARDO JAUREGUI TORRECILLA	01:42:32
JON ORTEGA AÑORGA	01:42:35
IÑIGO ALKORTA ETXEBERRIA	01:42:38
MOISES ANDRES ZUBIRIA	01:42:42
JOXEMARI PORTU AZPIROZ	01:43:18
CESAR DE LA FUENTE GARCIA	01:43:23
IÑAKI BENGOTXEA ZUBIAN	01:44:09
TOMAS IMAZ IZAGIRRE	01:44:34
JON RUEDA ETXEBERRIA	01:44:41
ALFONSO PEREZ JIMENEZ	01:45:15
GORKA LASA AZPIAZU	01:45:17
CARLOS PEREZ FRAISOLI	01:48:03
IÑAKI ARGOTE BELOQUI	01:49:13
TXUS IGLESIAS RIO	01:49:33
KARMELE LICEAGA ALCANTARA	01:50:02
JOSU ARRUTI HUEGUN	01:52:07
AITOR OTAMENDI LIZARAZU	01:53:11
BEÑAT ARRUTI AIZPURUA	01:53:32
ZURIKO LATAILLADE AIZPURUA	01:59:49
GARIKOITZ BEITIA BARROSO	02:11:37

Andatza Mendi Taldekoak, kezkatari etorkizunari begira

Mendizaletasunak hainbat herritar bildu izan ditu Andatza mendi taldearen inguruan. Baina gutxituz joan dira talde barruko kideak eta antolatu izan diren ekitaldietara joandako parte hartzaileen kopurua. Egungo kideek datoren urterako ekitaldi finkoak direnak burutuko dituzte, baina gainerakoa zaletuen esku utzi nahi dute. Mendizaleei bilgunera hurbildu eta Andatzatik antolatutako irteeratan parte hartzea deitzen zaie; abenduaren hirugarren astean ospatuko den Mendi Astera adibidez.

NOAUA! Amaitzear den urtea, zer moduz joan zaizue?

Andoni Udabe. Probintzia bakoitzean ekitaldi bat antolatzea zen asmoa. Baina Urkulukoa eta hurrengo urterako programatuak genituen irteerak burutu ditugu aurten; ibilaldia, Andatza eguna eta Pirinioetako asteburu pasa. Mendi Astera ere antolatuko dugu, baina aldatzekin, ahal den moduan.

ANDONI UDABE

“Jendearen zaletasunak aldatu egin dira eta mendian ibiltzeko modua ere desberdina da”

N. Ahal den moduan, eta zer nolako aldaketekin?

A. U. Orain, ekonomikoki ere ez gaude iaz bezala. Mendi Astean, urteroko bazkaria mantenduko dugu, haurrentzat ere ibilaldia ere antolatuko da, diapositiba emanaldiren bat...

Arkaitz Rezola. Abenduan izango da.

N. Zuen kezka datorren urteari begirakoa da ordea?

A. R. Talde barruan geroz eta gutxiago gaude lanerako, eta irteeratarako ere geroz eta jende gutxiago dator. Batetik taldean lanerako jende gehiagoren pre-



MENDIZALEEN BILGUNE DA ANDATZA TALDEA. ABENDU PARTEAN, MENDI ASTEA ANTOLATU DHI DUTE. DUELA BI URTEKO IRTEERA BATEAN ATERATAKO ARGAZKIA.

mia dago, eta bestalde, ia jendea animatzen den antolatutako irteeratarako ere.

A. U. Aukera desberdinak eskainita ere, ikusi dugu jendearen bizimodua, zaletasunak aldatu egin direla eta mendian ibiltzeko modua ere desberdina da. Bakoitza bere kontutik ibiltzen da. Bestalde, antolaketa lanerarako ere geroz eta gutxiago gaude.

N. Andatza mendi taldeak zer suposatzen du zuentzat?

A. U. Mendira joaten hasi berria nintzenez, jendea mendira koadrilan joaten ikusten nuen eta inbidia ematen zidan. Gogoan ematen zuten Andatza mendi taldean sartzeko.

Imanol Almandoz. Gu sartu ginenean mugitzen genituen bi edo hiru kinto desberdinetako koadrilak. Tartean, ni baino askoz helduagoak eta batzuk gazteagoak. Irteeratan giro ona sortzen zen. Gerora ordea, partaide kopurua gutxitzen joan zen, taldea uzten. Ez da erreleborik etorri. Egungo datu bat; 150 bat federatu daude. Jendea mendira joaten da, baina norbere kontu.

N. Zuen taldeak zer eskaintzen die mendizaleei?

A. U. Azkenean, denak ibiltzen gara mendian, baina taldean joateak beste giro eta salta du. Zuk ezagutzen ez dituzun beste leku asko ezagutzeko aukera ematen dizu, urrutira joan gabe.

Etxe inguruan leku asko ditugu ezagutzen ez ditugunak eta taldeak aukera hori ematen dizu.

N. Zertan nabarrituko da iragarri duzuen dinamika aldaketa?

A. U. Lehen baino ekitaldi gutxiago izango dira. Programatutako ditugun ekintzak apirilko ibilaldia, Andatza eguna eta Pirinioetako asteburuko irteera izango dira. Hortik aurrera, jendearen eskaera edo harreraren arabera izango da.

Eskubaloia, zozketa



Mikel Rekondok irabazi du Usurbil KEren azken zozketa, Bruño etxeko marisko lotea. Eskubaloia taldeak partehartzaileak eta Bruñoakoak eskertu nahi ditu.

Agenda!

Azaroak 12 osteguna
Usurbilgo elkartasuna Etiopian,
19:30ean diaporama-hitzaldia Sutegin.

Azaroak 13 ostirala
Zura taldearen kontzertua,
22:30ean Sutegin.

Azaroak 14 larunbata
“Euskarazetamol” antzerki saioa,
20:00etan Sutegin.

Azaroak 17 asteartea
Zumarte Musika Eskolako taldeen
saioa, 18:30ean Sutegin.

Azaroak 18 asteazkena
Perkusio kontzertua, “Danborren
eritmoan”, 18:00etan Sutegin.

Eguneko goardiako farmaziak

Azaroak 12, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Azaroak 13, ostirala
Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Azaroak 14, larunbata
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Azaroak 15, igandea
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Azaroak 16, astelehena
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Azaroak 17, asteartea
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Azaroak 18, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 19, osteguna
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Azaroak 20, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Azaroak 21, larunbata
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Azaroak 22, igandea
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Castilla Farmazia (22:00-09:00),
Urbietza kalea, 7 Hernani (943 552 941)

*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Reziklarte lehiaketan saritutako lanak ikusgai izango dira Usurbilen

San Markoseko Mankomunitateak “Reziklarte” izeneko lehiaketa jarri zuen martxan atez ateko zabor bilketaren ondorioz kendu ziren kontainerrak birziklatzeko. 70 proiektu bildu zituzten eta horietatik 26 aukeratu dituzte. Egun hauetan, erakusketa hori Donostian izan da. Azaroaren 17tik aurrera, Usurbilgo Dema plazan ikus ahal izango dugu erakusketa hori.

Erakusketa honetako egile gehienak Arte Ederretako ikasleak dira. Euskal Herrikoetz gain, badira Kataluniatik, Cadiztik eta Galiziatik aurkeztutako lanak ere. Artistek, kontainerrak euren gustuen arabera margotzeko aukera izan zuten. Erakusketa Donostian jarri zen ikusgai lehen aldiz eta, sei egunez, 26 kontainerrekin egindako artelanak eman dira ezagutzera. “Reziklarte” erakusketa San Markos Mankomunitateko gainontzeko herrietara iritsiko da. Oiarzun, Hernani, Lezo, Astigarraga... Azaroaren 17an gure herrira iritsiko da



REZIKLARTE ERAKUSKETAN, KONTAINERRAK ARTELAN BILAKATU DIRA.

erakusketa. Azaroaren 22ra arte egongo da ikusgai.

Merka2 San Markos, azaroaren 29an Dema plazan

Erabili ondoren, gauzak saldu, erosi, oparitu edo trukatu nahi dituztenentzat, azoka egokia da Merka2 San Markos izeneko. Doako zerbitzua da eta norbanako herritarrei zuzendua dago. Bigarren eskuko produktuen azoka hau azaroaren 29an iritsiko da beste behin ere gure artera.

Datorren astean, tratu txarrei buruzko antzerkia

Bi emakume, bat haurdun, beharbada. Zain beti zain. Eta Karmele? Zein da Karmele? Gure Karmele? Jipoitu egin al dute? Nork? Zilarrezko bandejan eskaintzen omen gara emakumeak. Karmele burdinezko bandejan eskaini omen da. Horregatik jipoitu al du? Orduan zergatik? Hala dio “Eta Karmele?” antzezlanaren sinopsiak. Iraia Elias eta Ainhoa Alberdik antzeztuko dute azaroaren 21ean larunbata Sutegin. Sarrerak kiroldegian salgai.

Larunbat honetan, Zubeldia Taldearen bazkaria

Denboraldi amaieran, Zubeldia Taldekoek bazkari baten inguruan elkartzeko ohitura dute. Talde hau, gogoan izango duzue, San Estebango bi anai txirindularien lagunek osatu zuten duela urte batzuk.

Larunbat honetan, Aginaga sagardotegian elkartuko dira. Txartelak Txiriboga tabernan jarri dira salgai, 25 eurotan. Txartelak erosteko epea azaroaren 12an amaituko da.

ETXEBIZITZA

- Logela bat alokatzen da etxe konpartitu batean. Pisu berria da eta Usurbilgo kaxkoan kokatuta dago. 610 319 405.
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berttua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetako egiteko aukera asko. 135.500 euro. 671417240.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailan. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldia, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Beheko Kale Atxegalden lokal bat daukagu salgai. Interesatuak deitu 645736726 telefonora.
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.

- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. 943361265.
- Usurbilgo industriale batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeite kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edo zein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plan-txan aritzeko: 630 438 571.

- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Ume baten forro polar beltza, kapuxaduna eta kre-maileraduna galdu da Kalezarrik Usurbilera bidean. 616436961
- Zazpi gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat eurotan. Tf zenbakia: 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkak, mahaia, kafe-makina, ontziteria, kaxa erregistratzailea, irabiagailua, zuku-makina, ontzi-garbigailua, harraskak, altzairu herdoiltzezinezko gainekoa... 607 389 570 (Mireia). E-posta: istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero, deitu. Oskar: 609468759 / oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatu bazuade maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925

Zorionak Izaro!
6 urte beteko dituzu azaroaren 13an. Zorionak eta muxu handi bat gure printzesari etxekoan partez. Ondo pasa deza zula zure urtebetzean. Asko maite zaitugu.



HILDAKOAK

Pedro Alkorta Larburu
Azaroaren 7an hil zen
80 urterekin

Oharra: Jaiotzak Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotzen ditugu. Mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan: 943 360 321.
E-posta: erredakzioa@noaua.com



www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Alquidepil

INTZAWELLA

ILEA PAINDEGIA PROFESSIONALS

LASER DEPILAZIOA
diodo Lightsheer
laserrarekin

diodo laserra

depilazio iraunkorra

Azaroak 1-martxoak 1

Besapeak.....	27€tik/hilean*
Ingleak.....	27€tik/hilean*
Ingleak+besapeak.....	46€tik/hilean*
Ezpainak.....	24€tik/hilean*
Kokotsa.....	24€tik/hilean*
Ezpainak+kokotsa.....	42€tik/hilean*
Hanka erdiak.....	97€tik/hilean*
Hankak.....	183€tik/hilean*
Hankak+Ingleak Bk.....	195€tik/hilean*

* 5 saio sartzen dira, hilabeteko kuota
12 hilabeteen ordaintzeko

%50 ko deskontua lortzeko aukera,
informa zaitez

Nagusia 8, 943 363 641



www.gipuzkoa.net/san-marcos

REZIKLARTE 09

Erakusketa bat baino gehiago

Ez galdu San Markos Mankomunitateko 10 udalerrietan izango den erakusketa ibiltaria. Erretiratutako edukiontzia berrerrabiliz 26 artistek egindako artelanak izango dira ikusgai. Gainera, Informazio-gunean hezitzaile talde batek gaikako bilketa eta birziklaketaren inguruko informazioa eskainiko dizu, izan ditzakezun zalantzak argituz.

ERAKUSKETAREN EGUTEGIA

HERRIA	EGUNA	LEKUA
DONOSTIA	Urriak 24 - 29	Urdaneta kalea Koldo Mitxelena Kulturunearen ondoan
OIARTZUN	Urriak 30 - azaroak 4	Done Eztebe plaza
HERNANI	Urriak 31 - azaroak 5	Gudarien plaza
LEZO	Azaroak 6 - 10	Euskal Herria plaza
ASTIGARRAGA	Azaroak 6 - 11	Barandiaran plaza
PASAIA	Azaroak 11 - 16	Gure Zumardia plaza
LASARTE-ORIA	Azaroak 12 - 17	Andatza plaza
USURBIL	Azaroak 17 - 22	Dema plaza
URNIETA	Azaroak 18 - 23	San Juan plaza
ERRETERIA	Azaroak 24 - 29 Igande arratsaldea itxita	Gamon zumardia

Informazio-gunearen ordutegia

Larunbata - igandea: 11:00 - 14:00 / 17:00 - 19:00

Astegunak: 16:00 - 19:30



ECOVIDRIO





Ofizioen Gida



URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

943 367 264
649 435 475
649 435 476

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

☎ 663 08 76 71
☎ 943 24 34 65
Barne eta kanpoko lanak

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

Josue
Igeltseritza

☎ 606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

 **Errazkin S.L.**
igeltseritza orokorra
943 372 679 eta 649 435 470
kale nagusia 47, behea A

Jose Aizpurua Unanue
teillatuak eta fatxadak

943 69 68 52
620 80 01 86
Obaba kalea 29, Asteasu



LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza,
klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021



Bainu eta sukalde
erreformak, gasa,
berokuntza

Josexo Ikatzeta

687 951 225

**JOSEBA
ARANGUREN
ITURGINTZA**

943 83 00 72
659 88 39 12

 **Enrique Alonso**
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA
Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA
☎ 659 675 283

Javier Orbegozo

GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3. esk



izagirreletrizitatea@hotmail.com

izAgirre

Apdo. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87

Elektrizatea

Golz Argi etxea n° 37
Kale Zahar Auzoa



**Antonio
URRUZOLA**

Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Asteasuain Industrialdea, 3

BEREZIARTUA S.L.

egurra eta
egur-aluminiozko
leihoak-eskailerak

Aginaga 943 371 571

BARRENETXE

Saisamendi Arregi, Imanol

ARROZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



MARGOAK - PAPERAK

**FERNANDO
PINTORAK**

ENPAPELAKETAK eta
PINTURAK OROKORREAN
nagusia, 1 TEL: 943 36 60 19



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78